**EMI/AIO** **42P A.D. 4-C/2020**

2020ko ekainaren 22an amaituko da Gipuzkoako Foru Aldundiaren errepide sarean artapen orokor, konponketa eta birgaitze lanak egiteko zerbitzu kontratuetan laneko arriskuen prebentzioaren jarraipena eta kontrola (25-SR-630/2015) egiteko zerbitzu kontratua, eta ez dago kontratu hori luzatzeko aukerarik.

Bide Artapeneko eta Kudeaketako Zerbitzuak komenigarritzat jotzen du beste tramitazio bat egitea laneko arriskuen prebentzioaren jarraipena eta kontrola egiteko zerbitzuak kontratatzeko. Era berean, adierazten du, zerbitzu kontratuetan jasotzen diren eginkizunek ingurumen arloan duten garrantzia dela-eta, bai prozedurei dagokienez, bai hondakinen kudeaketari dagokionez, ezinbestekoa dela jarraipen paralelo bat egitea. Horretarako, egokitzat jotzen du zerbitzuak plegu bakar batean jasotzea, zerbitzuak osagarriak direla iruditzen baitzaio.

Azaldutakoarekin bat eginez eta zerbitzu horiek beharrezkoak direnez, Bide Artapeneko eta Kudeaketako Zerbitzuak kontratazioari dagozkion tramiteak hastea proposatu du; horretarako, zerbitzu hauei dagokien preskripzio teknikoen agiria idatzi du: **Gipuzkoako Lurralde Historikoaren foru sareko errepideen artapen orokor, konponketa eta birgaitze lanak egiteko zerbitzu kontratuetan laneko arriskuen prebentzioaren eta ingurumen-klausulen jarraipena eta kontrola (16-SR-94/2019)**. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 685.720,28 euro da, % 21eko BEZa barne, eta lanak egiteko epea 24 hilabete, beste 24 hilabetez luza daitekeena.

Kontratuaren balio zenbatetsia 1.246.764,15 euro da, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 101. artikuluan xedatutako ondorioetarako.

El contrato de servicios de seguimiento y control de la prevención de riesgos laborales en los contratos de servicios para la ejecución de operaciones de conservación ordinaria, de reparación y de rehabilitación en las carreteras de la red foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa (25-SR-630/2015) finaliza su vigencia el 22 junio de 2020, sin posibilidad de prórroga.

El Servicio de Conservación y Gestión Vial estima conveniente tramitar una nueva contratación de los servicios de seguimiento y control de la prevención de riesgos laborales e indica asimismo, que la relevancia medioambiental de las labores recogidas en los contratos de servicios tanto en los procedimientos como en la gestión de residuos obliga a plantear un seguimiento de forma paralela por lo que considera oportuno aunar en un mismo pliego los servicios al estimarlos complementarios.

De acuerdo con lo expuesto, y siendo necesaria la prestación de los servicios, el Servicio de Conservación y Gestión Vial propone iniciar la tramitación de la correspondiente contratación, a cuyo efecto ha redactado el pliego de prescripciones técnicas para los servicios de **«Seguimiento y control de la prevención de riesgos laborales y de las cláusulas medioambientales en los contratos de servicios para la ejecución de operaciones de conservación ordinaria, de reparación y de rehabilitación en las carreteras de la red foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa» (16-SR-94/2019)**, con un presupuesto base de licitación de 685.720,28 euros (21% de IVA incluido), y un plazo de ejecución de veinticuatro (24) meses, prorrogable por otros veinticuatro (24) meses.

El valor estimado del contrato, a efectos de lo dispuesto en el artículo 101 de la Ley de Contratos del Sector Público, asciende a

1.246.764,15 euros.

Kontratatu beharreko zerbitzuek traktu jarraituko eta etengabeko izaera dutenez, kontratuari dagokionez aurtengo aurrekontuaren kontura 2020rako gastua baimendu behar da, 171.430,07 eurokoa (BEZa barne); eta gainerakoa, 514.290,21 euro (BEZa barne), hurrengo urteetan baimenduko da. Hori guztia martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzkoak, 54.3 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Dada la calificación de los servicios objeto de contrato como de carácter permanente y de tracto sucesivo, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 54.3 de Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, de Régimen Financiero y Presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa, procede autorizar con cargo al presupuesto vigente el gasto correspondiente a la anualidad del año 2020, que asciende a 171.430,07 € (IVA incluido), y el resto, por importe de 514.290,21 € (IVA incluido), en los próximos ejercicios.

Ondorioz, aipatu diren zerbitzuak kontratatzea komeni denez gero, Diputatuen Kontseiluak, eztabaidatu ondoren eta Bide Azpiegituretako Departamentuko foru diputatuak proposatuta,

En consecuencia, vista la conveniencia de proceder a la contratación de los servicios mencionados, este Consejo de Gobierno Foral, previa deliberación y a propuesta de la diputada foral del Departamento de Infraestructuras Viarias,

**ERABAKITZEN DU**

**Lehenengo.-** Preskripzio teknikoen agiria onestea, zerbitzu hau kontratatzeko: **Gipuzkoako Lurralde Historikoaren foru sareko errepideen artapen orokor, konponketa eta birgaitze lanak egiteko zerbitzu kontratuetan laneko arriskuen prebentzioaren eta ingurumen-klausulen jarraipena eta kontrola (16-SR-94/2019).**

**Bigarren.-** Onestea administrazio klausula partikularren agiria, aipatutako lanak kontratatzeko. Epea 24 hilabete izango da, beste 24 hilabetez luza daitekeena; eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 685.720,28 euro, % 21eko BEZa barne; balio zenbatetsia, berriz, 1.246.764,15 euro, eta urtekoak honela banatuko dira:

**A C U E R D A**

**Primero.-** Aprobar el pliego de prescripciones técnicas del contrato de servicios de **«Seguimiento y control de la prevención de riesgos laborales y de las cláusulas medioambientales en los contratos de servicios para la ejecución de operaciones de conservación ordinaria, de reparación y de rehabilitación en las carreteras de la red foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa» (16-SR-94/2019).**

**Segundo.-** Aprobar el pliego de cláusulas administrativas particulares para la contratación de los trabajos de referencia, con un plazo de ejecución veinticuatro (24) meses, prorrogable por otros veinticuatro (24) meses, un presupuesto base de licitación de 685.720,28 € (21% de IVA incluido), y un valor estimado de 1.246.764,15 euros, con la siguiente distribución de anualidades:

| Ekitaldia/Ejercicio | Zenbatekoa/Importe |
|---|---|
| 2020 | 171.430,07 € |
| 2021 | 342.860,14 € |
| 2022 | 171.430,07 € |

**Hirugarren.-** Baimentzea ehun eta hirurogeita hamaika mila laurehun eta hogeita hamar euro eta zazpi zentimoko gastua (171.430,07 €), BEZa barne, aurtengo aurrekontuko 1.0810.100.611.03.02 partidaren kontura.

**Tercero.-** Autorizar un gasto de ciento setenta y un mil cuatrocientos treinta euros con siete céntimos (171.430,07 €) IVA incluido, con cargo a la partida 1.0810.100.611.03.02 del vigente presupuesto.

**Laugarren.-** Kontratazio espedientea onestea eta kontratua prozedura irekiaren bidez eta hainbat irizpideren arabera adjudikatzeko prozedurari hasiera ematea.

**Cuarto.-** Aprobar el expediente de contratación y disponer la apertura del procedimiento abierto con pluralidad de criterios de valoración para la adjudicación del contrato.

**Bosgarren.-** Ahalmena ematea Bide Azpiegituretako Departamentuko foru diputatuari, lizitazioko tramiteak egin ondoren kontratua adjudikatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean kontratua sinatzeko, dagokion gastua baimendu eta xedatzeko, urtekoak benetako premietara egokitzeko, eta kontratua zehatz-mehatz bete eta lanak behar bezala burutzearren komeni dena egiteko, erabakitzeko eta ebazteko.

**Quinto.-** Facultar a la diputada foral del Departamento de Infraestructuras Viarias para decidir sobre la adjudicación del contrato, previos los trámites licitatorios oportunos, formalizarlo en nombre de la Diputación Foral de Gipuzkoa; autorizar y disponer el gasto correspondiente; reajustar las anualidades a las necesidades reales; y adoptar, en general, cuantos actos, decisiones y resoluciones resulten convenientes para la correcta ejecución de los trabajos y exacto cumplimiento del contrato.

**Seigarren.-** Ahalmena ematea Bide Azpiegituretako Departamentuko foru diputatuari, kontratua luzatzeko, luzapenak ekar dezakeen gastua baimentzeko eta xedatzeko, eta urtekoak benetako premietara egokitzeko.

**Sexto.-** Facultar a la diputada foral del Departamento de Infraestructuras Viarias para prorrogar el contrato, para la autorización y disposición del gasto correspondiente a la prórroga, y para reajustar las anualidades a las necesidades reales.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Erabaki honen aurka, **administrazioarekiko auzi errekurtsoa** aurkez dezakete interesdunek, zuzenean, Administrazioarekiko Auzietako Donostiako epaitegietan. Horretarako, **bi hilabeteko epea**

El presente acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de

dute, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Nolanahi ere, lizitazio iragarkiaren aurka nahiz administrazio klausula partikularren eta preskripzio teknikoen agirien aurka kontratazio alorreko hautazko errekurtso berezia aurkez daiteke bakarrik administrazioarekiko auzi errekurtsoaren aurretik, Kontratazio alorreko errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboari, iragarkia argitaratu edo orri horiek jaso edo eskuragarri jarri ziren egunaren biharamunetik hasita 15 laneguneko epean. Bi kasuotan, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren edo bereziaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2020ko urtarrilaren 16a.

DOS MESES a partir del día siguiente al de su publicación o, en su caso, notificación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En todo caso, contra el anuncio de licitación y los pliegos de cláusulas administrativas particulares y de prescripciones técnicas sólo cabe interponer, previa y potestativamente, el recurso especial en materia de contratación ante el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales en el plazo de 15 días hábiles a partir del día siguiente a aquél en que se haya publicado el anuncio o se hayan recibido o puesto a disposición los pliegos. En ambos casos, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o el especial, o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, 16 de enero de 2020.

FORU DIPUTATUA /LA DIPUTADA FORAL

Aintzane Oiarbide Iruretagoiena.

DIPUTATUEN KONTSEILUA.- Aurreko proposamena onartzea erabaki du.

EL CONSEJO DE GOBIERNO FORAL.- Acuerda prestar aprobación a la precedente propuesta.

Donostia, 2020ko otsailaren 4a. / San Sebastián, 4 de febrero de 2020.

NORI JAKINARAZIA / COMUNICADO A:
FINANTZAK ETA AURREKONTUAK / FINANZAS Y PRESUPUESTOS